



26. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana

Alarma egoerako 26. eguna. 2020ko apirilaren 10a, asteazkena

Hilaren 9ko, osteguneko, Kudeaketa / Jarduerak

BALIABIDE INSTITUZIONALAK

Egunero entzuten ditugu gure klase politikoaren zenbait adierazpen, non ematen baitu ados daudela planteatzen ditugun eskakizunekin. Esate baterako, atzo Ingurumeneko foru diputatuak, Jose Ignacio Asensiok, hauxe esan zuen: *“Aurreikusiak ditugun proiektu estrategiko batzuek itxaron egin beharko dute, orain gure lehentasuna pertsonak baitira. Kontuan izan dugu hori, aterpeetako 400 plaza lurralde honetako gizarte politiken zerbitzuan jarri direnean. Lehenik, lehentasuna duten gauzak, noski”*. Beraz, ikusten da ezen, udal aterpeetan ez ezik, beste **aterpe batzuetan ere badirela plaza libreak**, Atano frontoia ordezkatu eta oraindik ere kanpoan dauden pertsonak hartzeko adina. **Arazoa ez dira baliabideak, baizik eta borondate politikoa.**

"EZ ITZAZUE KALERATU" DEIA

Gizarte laguntza. Atzo zabaldu genuen Manifestua, eta egunean zehar 400 lagun eta kolektibok baino gehiagok agertu zuten babesa hartarako jarri genuen plataforma informatikoan. Horrek pentsarazten digu herritarren parte handi bat ez dagoela ados ez aterperik ez janaririk ez duten pertsonak kanpoan uzten dituzten politikekin, eta prest dagoela agintariei hori exijitzeko. Babes hori funtsezkoa da instituzioek senti ez dezaten eskuak libre dituztela aurreko egoerara itzultzeko. Izan ere, itxialdiaren ondoren, are egoera gogorragoari egin beharko diogu aurre, eta pertsona gehiagori eragingo die.

Zabalkundea. Horregatik, arren eskatzen dizuegu Manifestua ahalik eta gehien zabal dezazuen gurekin batera, eta harekin bat egitera anima ditzazuen eskari hauek bidezkoztat joko dituzten pertsona eta erakunde guztiak. Hau ezin da izan esku gutxi batzuen ahalegina. Itxialdian, ikusi dugu zein garrantzitsua den jende askok bat egitea Osasun arloko langileei babesa erakusteko, eta pandemiari nahikoa baliabiderik gabe aurre egitera eraman gaituzten murrizpen politikak salatzeke. Hemen eta orain, mobilizazio hori eta batasun hori behar ditugu Manifestuaren leloa exijitzeko: **“Ez itzazue kaleratu”**. Sinetsita gaude: itxialdian jarraituko dugun aste hauetan, **mobilizazio indartsua lortuko dugu, ametsari eusteko adinakoa, hots, helburu hori, bidezkoa izateaz gainera, lortu ere lor daitekeela.**

KOMUNIKAZIOA. 26. buletina zabaldu da sareetan eta komunikabideei helarazi zaie.

BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

Han eta hemen laguntzen jarraitzen duen jendeari gure esker ona erakutsiz, arropa eskaini diguten pertsona guztiak aipatu nahi ditugu. Beharrak handiak dira, baina ekarpen solidarioak ere bai.

Diru-ekarpen solidarioari dagokionez, dagoeneko **147 lagunek 9.538 €** eman dituzte guztira.

Egunero jasotzen jarraitzen dugu **Gandarias** eta **Pandora** jatetxeen elikagai ekarpena.



26. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana

14. PILULA

Tutoretzapetik irtendako gazteak Beregain al dira bizimodu independentea izateko?

Duela bi Buletin, gai hau jorratu genuen: zenbat traba zituzten 18 urte beteta edo beste autonomia erkidego batean tutoretzapean egon ondoren lurralde honetara iristen zirenek. Horrek esan nahi al du gure lurraldean tutoretzapean daudenek nahikoa baliabide dituztela etorkizunari modu beregainean aurre egiteko? **Nola begiratzten zaion.** Hemen ere, oro ez da urre. **Aldundiak**, legez, tutoretzapean hartu behar ditu haietaz arduratuko den familiarik ez duten gazteak. Baliabide asko jartzen ditu horretarako. Arazoa zera da, **adin nagusitasunera iritsitakoan, kalean uzten dituela batzuk.** Hala, Harrera Sareak artatzen duen gizataldean sartzen dira. Atzeritarren kasuan, *Mena* izengoiti iraingarria ematen zaie. **Nor dira?**

Emantzipazio pisuak. Denbora luzean, 18 urte betetakoan adingabekoen zentroetatik irteten ziren gazteak kalean geratzen ziren, zerrenda luzeak izaten baitziren emantzipazio pisu batean sartu ahal izateko; gaur egun, emantzipazio pisu batera doazenak ez dituzte zuzenean eramaten, **hilabete bat edo bi itxaron behar izaten dute plaza lortzeko.** Lo egiteko lekurik gabe, jateko edo garraioa ordaintzeko dirurik gabe –zeren eta batzuek utzi egin behar izaten baitute prestakuntza baina beste batzuek ez, horretarako trenean tiketik gabe ibili behar badute ere (bai, segurtasunaren izenean geldiarazten dituzten batzuk ikastera joateko sartzen dira trenean tiketik gabe, hori dute delitua). Beste batzuk formazio zentroen laguntzari esker egiten dute aurrera, lagundu egiten baitiete garraioan eta bideak bilatzen baitituzte zentroan jan eta are lo ere egin ahal izan dezaten. Aldundiak erabakitzen badu gazteak **arreta handiagoa behar duela heziketan laguntzeko**, zentro batera bidaltzen du. Baina, hara paradoxa! **Kalean itxaron beharko du, gutxienez sei hilabetez.** Nork du babes premia handiagoa! Bitartean, laguntzarik ez ostatua bilatzeko.

Sei hilabete baino gutxiago badarama errolatuta (urgentziatzko harrera zentroan, UBAn, Foru Agindua iristen denean errolatzen dute, bi hilabete geroago) edo ez badu irtenbideren bat bilatu eta ez badu aldeko txostena, **kalera doa 18 urtetan**, eta gizarte bazterketaren balorazioa (BARE) eskatu ahal izango du, sei hilabete ere itxaron beharko du entrebista egin diezaioten, eta orduan, baldin eta “gizarte bazterketa egoeran” dagoela erabakitzen bada, Aldundiak bizilekua izateko baliabidea emango dio. “Gizarte bazterketa arriskua” duela erabakitzen badu, berriz, Udalaren ardurapean geratuko da, baina Udalak ez du ia bizileku baliabiderik, eta **kalean jarraituko du.** Eta hori bai, **bizileku baimenik gabe**, salbu eta bizibiderik baldin badu (537,84 €) edo urtebeterako lan-kontratua aurkezten badu, gutxienez 850 €-ko soldatarekin. Ondorioa: aterperik gabekoen sailean sartuko da.

Hala eta guztiz ere, aurreko buletinean esan genuenez, hain etorkizun gogorra izanik, mutil asko eta neska batzuk **formazio ikastaroak, praktikak eta abar egiten jarraitzen dute...** haien nahia lanean hastea baita. Berririo diogu, **ez al dute egundoko meritua aurrera ateratzea lortzen duten neska eta mutil horiek guztiek?** Ez al dugu **erantzukizun bat bide bazterrean geratzen direnei begira?**

Donostiako Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com

675 71 53 15

Facebook: @HiritarronHarreraSarea

Instagram: @harrerasarea

Dohaintzak: CC ES44 2095 5013 70 9119577666